

Aretxagazeta

An illustration depicting a scene in traditional Basque attire. In the foreground, two men are engaged in conversation. The man on the left is older, wearing a white shirt, a dark vest, and grey trousers. The man on the right is younger, wearing a light blue shirt and trousers, with a blue shawl draped over his shoulders. To their right, a woman in a pink dress and a red shawl with floral patterns is looking towards them. Another woman in a blue dress is partially visible behind her. The background shows a landscape with trees and a path.

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko maiatzak 14 • 144. zka.

Auzoetako erromeixak

aspaldiko garaiak gogoratuz

inpresioak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak
 • fakturak • tarjetak • pe
 rioak • sobreak • kalenda
 filmazioak • publizidadea
 sarrerak • postulazioak •
 lak • liburuak • katalogoa
 • aldizkariak • errekor
 presupue
 • aldizkariak • katalogo
 nak • aldizkariak • boletir
 erriak • loteria • posterr
 soak • jai egitarauak • pe
 turak • pegatin
 • sobreak • kalendarioak
 inpresioak • jai egitarauak
 • fakturak • tarjetak • pe
 rioak • sobreak • kalenda
 filmazioak • publizidadea
 sarrerak • postulazioak
 kartelak • liburuak • ka
 pegatinak • aldizkariak • errekor
 datorioak • sobreak •




Araba Ibilbidea

20550 ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4

Tfnoa.: 943 79 18 44


Faxa: 943 79 29 41



EGUZKIGRAF

inprimategia

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano

Zigorrola, 1 8. Pabilioia

Tfnoa.: 943 77 11 30

ARRASATE


Auzoetako erromeixak faltan botatzen dituzu?



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Ana Maria Aretxaga (Etxekoandrea)

Erromeixen ohitura galtzea pena bat da. Berriz ere berreskuratu beharko genituzke. Bertako giroa desberdina zen. Baliteke parajearen ondorioa izatea.




Jose Miguel Uribarren (Langilea)

Bai faltan botatzen ditut. Ohitura hau berreskuratu egin beharko litzateke, baina auzokoen eskuetan dagoela uste dut.




Karmelo Olabe (Jubilatua)

Bai noski. Lehena-goko erromeixetan giro sanoa egoten zen. Giro euskalduna. Gaueko 10etarako bukatzen ziren arren, oso juerga majoa egiten genuen.



Aitor Aranzabal (Langilea)

Bai. Erromeixa hauek indartzeko bidea aurkitu beharko litzateke, nahiko garestiak izaten dira eta. Bertan, oso giro sanoa egoten zen.



e s k u t i t z a

Zinea dala eta

Atxabaltan dagoeneko ez dago zinerik. Azpian sinatzen dugunok gure haserrea agertu nahi genuke Udaleko kultur arduradunek zinearekiko erakutsi duten ardura ezagatik. Zinera inoiz etorri zarenok ikusi dituzue eta bizi bertan izandako arazoak.

Proiektorea ez zebilen ondo. Honek askotan pelikulak oso soinu kaskarrarekin botatzera behartu gaitu. Beste proiektore bat eduki behar luke zineak, pelikulak ondo emateko. Kafazioa beste arazo bat izan da. Pelikulak hotzez akabatzen ikusi beharra eguneroko kontua bilakatu da.

Informazioko panelak, orain gutxi arte Loramendikoa erreta eta kalekoa apurtua zeuden. Nola helarazi herritarrei zein pelikula ematen den eta noiz?

Arazo hauei ez dio erantzunik eman Udalak, interes falta baino ez du erakutsi eta ikusitakoa gertatu da.

Akabo zinea.

Akabo zinea eta guk zera galdeztzen dugu, ez ote du herriak zinea ganoraz ikusteko aukera merezi?

IGOR HETXANDIA LASKURAIN
IOSU TXINTXURRETA ZABALA
IBAI BENGEOA JAUREGI
IGOTZ URZELAI ERAÑA.

Zorinak Axu!

Norek esango zauen Aretxagazeta bidez komunikatu bigitzenik. Zu hor lau hormen artien, herrixa defendatzeagatik bahituta egon arren, bertakook zutaz gogoratzen garelana esan nahi dotzugu.

Horretaz gain, gaur zure lagunok etxien geratu eta antxoak janaz eta Errioxako ardo goxua eranaz ospatuko eguna.

Besterik gabe, animo eta eutsi gogor!

Gure oparixa laister eukiko zu eskuetan, sekulako pantaloneta ederrak,

honuntnza korrika etor zaitezten, Andramaixetako mobida dana gertatze.

Guay, guay.
Eztau zu modukorik.

ZORIONIK BEROENAK
URBALTZEKO LAGUNEN PARTETIK.

Jose Mari Elkoro jubeniletan herriko internazional bakarra

Gaizki ulertu baten ondorioz, aurreko aleko erreportaietan herriko jokalaria eta jubeniletan internazionala izandako **Jose Mari Elkoro** ez genuen aipatu. Sentitzen dugu beraren berri ez ematea, besteek hainako merezimendua du eta.

UDAn jokatu ondoren, Mirandesen eta Espainiako selekzioan ere jokatu zuen, ondoren berriz ere herriko taldera bueltatuz.

ARETXAGAZETA

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio eta publizitate arduradunak:** Iratxe Bengoia eta Amaia Gastañaga. **Banatzaila:** Itxaso Barbero. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroioabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Legе gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin. **Azala:** "Vida Vasca" aldizkaritik aterata, Jose Arrueneren marrazkia.

Aretxabaletako institutoak diploma banaketa egin zuen



Ikastaroko neska bakarra diploma jasotzerako orduan

gainontzekoek bezala, berak ere lanpostua lortu du. Sexuak ez dauka garrantzirik”, gehitu zuen Pablo Txintxurretak, institutuko zuzendariak.

Urteko balorazioa: oso positiboa

Bertan izandako partaide guztiek oso balorazio positiboa egin zioten erraminten mekanizazio eta fabrikazioari buruzko ikastaro honi.

Ikasleek planoak interpretatzen ikasi dute, praktikak ere egin dituzte, piezak kontrolatzen ere badakite. Gauza guzti hauek gainera benetako piezekin eta inguruko lantegietan egin dituzte. Hala ere, hutsune bat nabaritu dute. Balia-bide ezagatik, ezin izan dute “kontrol numerikoa” landu. Beraz, datorren urteari begira hori izango litzateke euren helburuetariko bat.

Ikastarorako udalak eta Eusko Jaurlaritzako lan sailak emandako diru-laguntza oso garrantzitsua izan da. Hala ere, beharrezkoa duten torno eta fresadora bat erosteko, beste 30 miloi inguru falta zaie.

Datorren ikasturtera begira

Egun, lantegietan dagoen demanda ikusita, eta aurtengo erantzun ezinhobea kontuan hartuta, datorren ikasturtean ere kurtso hau eskeintzea erabaki da, “Soldadura eta Kaldereriako” ikastaro berriaz gain.

Ikastaroko ikasle guztiak lanean hasi dira

Pasa den maiatzaren 7an, Aretxabaletako Institutuak “Erraminten mekanizazio eta fabrikazioa” ikasturteko ikasleei, diplomak banatu zizkien. Ekin-tza honetan, Juan Antonio Rodriguez alkatea, Desiderio Vicente lan saileko zuzendaria eta Foru Aldundiko ekonomiako Guillermo Etxerrika egon ziren beste batzuen artean.

“Erraminten mekanizazio eta fabrikazioa”ri buruzko kurtsoaren ideia herriko udaletxean sortu zen. Inguruko lantegietan dagoen eskaera ikusita, interesgarria iruditu

zitzaien. Horrela bada, Aretxabaletako Institutua kurtso hau eskeintzen hasi zen.

Esan beharra dago, Eusko Jaur-laritzako lan sailak ere finantziatutakoa izan dela.

Lehenengo aldiz eskeini den ikastaro hau 1.000 ordutakoa izan da; eguneko 6 ordu eta 15 minututakoa. Aurreinskripzioan 20 pertsonen izena eman zuten, baina aukeraketa baten ondoren, 11 izan ziren hautatuak. Esatekoa da, guztiek lanpostua lortu dutela. “Kurtso hauek mutilei zuzenduta daudela uste du jendeak. Kurtso honetan neska bakarra egon da, eta

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Aurtengo urterako ur arazorik ez!

Aurtengo udaberria euritsua izaten ari da eta, ondorioz, Urkuluko urtegiaren urak nabarmen igo du. Astelehenean bere ur-kapazitatearen % 98,3an zegoen. Guztira 10 milioi m³-tako bolumena du urtegiak eta guztiz betetzeko 20 zm falta zaizkio.

Aurreko urteetako datuekin konparaketa bat egin, iazko maiatzaren 11n % 79,69an aurkitzen zen; 96an %78,1ean eta 95ean 87,5ean. Beraz, aurrekoetan baino ur dexente gehiago du.

Josetxo Saizar Gipuzkoako Ur Partzuergoko arduradunak balorazio baikorra egin du Gipuzkoako urtegiek azaltzen duten egoeraz. Hala ere, momentuz ez da urik askatuko. "Urtegia guztiz bete eta gainezka

egiten badu, azpian dagoen ur zaharra kenduko da, ur berriak kalitate hobea duelako eta oxigenatuago dagoelako". Dena dela, urtegiaren ahalik eta ur gehien jasotzea komeni da, uda aldera errekek ur gutxi daramatenean askatzeko.

Honekin batera, urtegiak momentu honetan duen ur-maila ikusita, aurtengo eta datorren urterako ur-arazorik ez dagoela aurreratu du.

Bestalde, aurrean aipatu den moduan azken hilabeteak oso euritsuak izan dira. Apirila izan da hilerik euritsuena 146 litroekin; urtarrila: 67 l.; otsaila: 47 l.; martxo: 91 l. Azkenik, maiatzeko lehen hamar egunetan 64 litro bota ditu.



20 zm falta zaizkio urtegiari guztiz betetzeko

Zinearekin zer?

Oraindik zinearekin zer egingo den ez da erabaki. Kultura batzordeak soinua eta imagina hobetzeko aurrekontu bat aurkeztu du udaletxean. Aipatutako aurrekontua gobernu batzordean aztertu da eta honek, momentuz behintzat, merkatuko beste eskaintza batzuk aztertzea erabaki du. Beraz, Udalak beste aurrekontu batzuk aztertzea nahi du lehendabizi eta ondoren zinea konpontzeak merezi duen ikusteko ikerketa bat egingo da.

Zapatuan istripu larria


Zapatuan zoritxarreko istripua gertatu zen Otalora kalean. Ertzantzak adierazitakoaren arabera, txirringarritako Seat Malaga kotxe batek C. G. M. 89 urteko emakume atxabal-tarra harrapatu zuen. Istripuaren ondorioz, emakumeak eskuineko besoa hautsi eta buruan kolpea hartu zuen. Emakumea istripua gertatu eta ordu batzutara hil egin zen.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAETA

Jauregi
Okindegia



Otalora, 10
Aretxabaeta

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaeta
Tfnoa: 79 10 96



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55



DOCKERS®

pants by
Levi Strauss & Co.




Lehen jaunartzea egin duten haur batzuk

Bukatu dira aurtengo lehenengo jaunartze ospakizunak

Urte osoan zehar lehenengo jaunartzea egiteko prestatzen ibili ondoren, dagoneko beraien nahia lortu dute. 9 urteko 36 neska mutiko izan dira elizkizun hauetan parte hartu dutenak.

Haurrak, senideak eta bertara hurbildu ziren guztiak pozik ageri ziren. Zorionak guztiei!



Campo de Mendizorroza

Partido 7
Hora 19:15
4,30
Intr

Día del Club

Partido de fútbol - 1.º Regional
entre los equipos

U. D. Arechavaleta
(2.º clasificado)

Deportivo Alavés
(1.º clasificado)

LOCALIDADES	Asistencia	Porcentaje
Alavesa Central	100	100
Alavesa de Orio	72	90
Foroarradi	58	72
Media Península Em.	36	45
Oliva Central Gatauna	46	57
Media Omba (Sancti Spiritus)	30	37
Sancti Spiritus	20	25
Mediana	11	14

TAQUILLA OFICIAL (Pl. Nuevo Mirador)
Sábado día 6 de 7 a 9:30
Domingo día 7 de 11 a 2
(Abierto de Mendizorroza)
A partir de las 8,30
(dean ut daren)

NIÑOS GRATIS

UDA eta Alavesaren arteko partidua lehenengo erregionalean

Alavesa zoriondu beharrean gauden honetan, 1971. urtean UDA eta Alavesaren artean jokaturako partidua iragarkia heldu zaigu eskuartera.

Bitxia bada ere, UDAk, (orduan sailkapenean bigarren zegoena), eta Alavesak, (lehen sailkatua), lehenengo erregionalean jokatzen zuten. 1971ko martxoaren 7an izan zen partidua Mendizorroztako futbol zelaian.

NOTA: Quedan suprimidos todos los posts a favor.

Errekabarren-Loramendi bidea laister zabalik

Eguraldiak ekiditzen ez badu behintzat, maiatzerako Loramendi-Errekabarren bidea zabalik egotea espero da. BAMA da proiektu honetan lanean diharduen enpresa. Oraindik ez da ezagutzen kale zabaltze honek izango duen gastua, aurrekontu zehatz bat ez dago eta. Bide berri honetan ibilgailuen abiadura kontrolatu nahi da. Horretarako, Belorrieta auzoan adibidez, errotonda bat egingo da.

ERRENTA AITORPENENA 97


Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.




Zenbaki



Aldez aurretik deitu!

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena



Euskeraren eguna eta Otala-Zelaiko erromeria ekintzaz beterik datoz

Zapatuan euskeraren eguna ospatuko da herrian. Baina egun honi hasiera eman aurretik, bihar, ostirala, antzerkia ikusteko aukera egongo da. Kukubiltxok eskeinutako lana, arratsaldeko 4:30etan izango da herriko plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu, aldiz, Iturrigorri frontoian izango da.

Maiatzak 16: Euskeraren eguna

Egun honetako ekintzak, goizeko 7etan hasiko dira, III. Gorriñaren mermorialarekin. Aurreko urteetan Aizkorrirako joan-etorria korrikan egin bada ere, aurtan oinez egiteko aukera ere badago.

11:30etan, patata tortila leihaketa hasiko da Durana kalean. Ondoren, eguerdiko 12etan, joan den urtean bezalaxe Kanpai jotzea egongo da eta jarraian txalaparta herriko plazan.

13:00etan, txikiteoa hasiko da Musika Eskolako trikitilariekin eta tortila leihaketako sariak ere banatuko dira.

Ainhoa Agirrezaldegi eta Jokin Sorozabalekin bertso bazkaria antolatu da Durana Kalean. Aurtengo menua: ensalada, oilasko errea, gaztaia eta menbriloa, kafea eta kopaz lagunduta.



Datorren astebukaera ekintzaz josita dator

Ekintzaz beteriko asteburu honi, kukubiltxo antzerki taldeak emango dio hasiera maiatzaren 15ean

Arratsalderako, berriz, aldebereko xake partidak 16:30etan, Mus txapelketa 17:00etan eta aurreko urteetan moduan, kirola eta zailtasun txapelketak antolatu dira. 18:00 etan Loramendi dantza taldearen ekitaldia egongo da Duranan, baita Larrain dantza ere. 19:30etan, emakumeendako IV. bolo txapelketa egongo da.

Egunari amaiera emateko, ALA-ITZ ETA MAIDERekin erromeria egongo da Mitarte kalean. Honetaz gain egunean zehar, Aretxabaletako akordeoi orkestraren txaranga, eta gaztai eta sagardo dastaketa egongo da. Baita, Okila tailagin taldea, Margolagunak eta Hiruatx Hirugarren Mundu taldearen erakusketa ere.

Euskeraren eguneko antolatzaileak, Loramendi E.E., Berbari hitzarmeneko talde eta elkarteak, Arlutz, Ezkutu, Haizea, Izotz eta Urbaltz tabernak, eta Aretxabaletako

jai batzordea izan dira.

Maiatzak 17: Otala -Zelai erromeria

Goizeko 10:00etan, Atxabaltako Loramendi taldeko txistulariekin diana egongo da. Ordu bete beranduago eta arratsaldeko 17:00ak arte, umeek gaztelu puzgarrian jolasteko aukera izango dute. Bestalde, eguerdiko 12:00etatik 13:00ak arte, animaliakin ere jokuak egongo dira. Jarraian, Atxabaltako akordeoilariak beraien emanaldia eskainiko dutelarik. 14:00etan izango den bazkari herrikoira, norberak eraman beharko du janaria.

Arratsaldean, sokatira txapelketa, Loramendi dantza taldearen eskutik eta ondoren dantza saioa egongo da arratsaldeko 18:00etan. Bukatzeko musikaz disfrutatzeo aukera izango da. Jai batzordea Udaleko kultura sailarekin batera erromeriaren antolatzailea da.

“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 79 79 24

Pelikularik hoberenak

**DON
BIDEO**

Lezama Merkatal
zentrua
ARETXABALETA

Alaitz eta Mainer

“Desberdinak gara baina ondo konpontzen gara”

Datorren zapatuan, Euskararen eguna, herrian izango dugu Alaitz eta Mainer bikote oiartzuarra. Alaitz Telletxeak 22 urte ditu, Mainer Zabalegik, berriz, 21. Iaz beren lehen diska atera ondoren, Euskal Herriko txoko ia gehienak bisitatu dituzte. Zapatuan lehen diskako abestekin eta kanta berrieekin gure artean izango ditugu.

- Nola izan ziren trikitixa munduan zuen lehenengo has-tapenak?

- **Alaitz:** Bederatzi urtekin hasi nintzen trikitixa jotzen, 14kin, berriz, biok elkarrekin jotzeari ekin genion. Nire familian bi lehengusu nituen trikitilariak eta gurasoei txiki-txikitatik lata ematen nien soinua ikasi nahi nuela-eta. Bederatzi urtekin ekarri zidaten lehenengo soinua. 14 urte genituenetik Mainer eta biok elkarrekin jo dugu trikitixa eta pandearoa.

- **Mainer:** Nire familian ere betidanik egon da musikarekiko zaletasuna. Aita “Oroitza” taldeko gitarrista zen eta aitona trikitixa jotzen zuen. Txikitari abeslaria izatea gura nuen, eta pianoa ikasten ere hasi nintzen.

- **Elkarrekin iaz atera zenuten lehen diskoa, zein izan da erantzuna?**

- “Amets” izeneko diskarekin espero genuena baino arrakasta handiago izan dugu. Diska iazko maiatzean aurkeztu genuen eta berehala hasi zitzaizkigun deitzen. Horrenbestereinokoa izango zenik ez genuen planteatzen. Beraz, iazko udaberri eta udan lan eta lan ibili ginen, ia gelditu ere egin barik. Pixkat nekaturata bukatu genuen.

Neguan lau hilabete oporrak hartu ditugu; eskertzen dira. Orain osterara ere hasi gara eta dagoeneko aste-



“Musikari eskaintzen diogu ia denbora guztia”

bukaera guztiak okupatuta ditugu.

- **Horrenbeste kontzertu, ez al da gogorra?**

- Ilusio eta gogo handiz gabiltza eta orduan ez da horren gogorra egiten. Momentu hau aprobetxatuko dugu gure musikari etekinik onena ateratzeko, gero boom hau jeitsiko dela badakigu.

- **Musikatik aparte, eguneroko bizitzan zertan diharduzue?**

- Musikari eskaintzen diogu ia denbora guztia. Entsaioak egiteaz gain, ahotsa ere lantzen ari gara. Hiru-lau kanta berri atera ditugu eta bertsio bat edo beste; bigarren diskoa ateratzeko lanean gabiltza.

- **Abestiak zuek sortzen dituzte?**

- Bai, geuk sortzeari garrantzia ematen diogu. Bion artean egiten

ditugu, Mainerrek erraztasun handiagoa du letrak asmatzeko.

- **Zenbat zarete taldean?**

- Taldea bost lagunek osatzen dugu. Bateria: Aitz Ostolaza; baxua: Laurent Feriol; gitarra: Claudio Viola italiarra, Mainerrek pandero eta perkusio txikia eta Alaitzek trikitixa. Aurreko udan talde barik gelditu ginen eta oso gogorra izan zen; orain oso pozik ari gara talde berriaz.

- **Alaitz eta Mainerrek Euskal Herriko txoko asko ezagutuko zituzten honezgero?**

- Bai, hala da. Iaz esaterako Bizkaia aldean kontzertu asko eman genituen. Herriko plaza, jendea eta tabernak ezagutzen ditugu; normalean kontzertua eman eta etxera bueltatzen gara.

- **Euskal Herrikan kanpo abestu duzue?**

- Ez asko, baina egia esan kanpora irtetzeko desiatzen gaude.

- **Eta zuen afizioak?**

- **A:** Lo egitea! Diskako “Ez da errexa” abestia barrendik atera zitzaidan. Bestalde, nahiko gautxoria naiz, goizaldera ohera sartu eta eguardirarte lo egitea gustatzen zait. Zinera joatea ere atsegin dut, pasiatzea, mutilaz eta lagunekin irtezea...


- **M:** Bidaiatzea nire ametsa da. Mendira joatea ere gustatzen zait, hankak uretan bustitzea, hondartzan oinutsik ibiltzea...

Musikatik aparte desberdinak izan arren, oso ondo konpontzen gara. Desberdinak izateak, bere xarma du; aberasgarria da.

- **Zuen etorkizunaz esatekorik bai?**

- **A:** Nire ilusioa musika munduan jarraitzea da, betidanik gustatu izan zait.

- **M:** Musika mundu hau gogoko dudan arren, erizaintza ere gustatzen zait.



“Arazo politikoa konpontzeko Irlandan erabili duten tresnak, hau da elkarrizketak, ez al du berdin balio Euskal Herriarentzako?”

Irlanda, Euroa eta desenplegua

Guztion ahotan dabil-tza azkenotan, Irlanda, Euroa eta desenplegua. Lehenengoaren kasuan bake prozesu historiko batean murgildu direlako; Euroari bedeinkapen ofiziala eman diotelako; eta desenpleguaren kasuan Maiatzak 1 igaro berri dugulako. Hiruren inguruan bada zeresanik.

Irlandaren kasuan baten batzuk atera duten ondorioz nagusia honako hau da: “Euskal Herria eta Irlanda diferenteak direla”. Ederra bolie! Eta? Konforme, diferenteak dira, baina arazo politikoa konpontzeko Irlandan erabili duten tresnak, hau da elkarrizketak, ez al du berdin balio Euskal Herriarentzako?

Euroa. 2002. urteko uztailetik aurrera egunkaria eurotan erosiko dugu. Europa bateratua lortzeko tresnarik garrantzitsuenetarikoa da Euroa. Europa berri hori osatzen duten Estatuak arnasa hartu ezinik ibili dira defizit publikoa, inflazioa, interes-tipoak eta zor publikoa murriztu nahian Europa berriaren

argazkian azaltzeko.

Alemania, Frantzia, Espainia edo Italia, Euskal Herria eta Irlanda moduan, diferenteak dira. Zer dela eta kasu honetan, hain diferenteak izanik, tresnak, hau da, euroak, danontzako balio izatea?

Eta **desenplegua.** Estatu espainiarrean %20ko tasa daukate, Europako Estatuaren batzbestekoa %10,5ekoa da; Estatu Batuetan %5ekoa; eta Japonen %3,5ekoa. Euskal Komunitate Autonomoan Espainiatik oso gertu gaude, eta Deba Garaian Estatu Batuetatik gertuago Europatik baino. Gai honetan ere diferenteak gara. Maiatzak 1ean sindikatuen eslogana “35 ordu” takoa izan da. Hain herri diferenteak izanda, berdinak izan behar ote dira enplegua sortzeko erabili behar diren tresnak?

Hiruren kasuan “diferentzia”ren kontzeptua interes politiko eta ekonomikoaren arabera interpretatzen da.

JAVIER MARCOS

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**ORTOPEDIA
ORTO LAGUN**

Zuri laguntzeko gaude,

- Ohe artikulatuak.
- Bañerak, gruak, takatakak.
- Komuneko aulkiak, gurpil aulkiak arinak eta elektrikoak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Mondeo-a azken hiru urteotan bere kategorian Deba Garaiko salmentetan liderra. Marketan ere Ford-a dugu liderra.

Mondeo
liderra

PREZIO ETA KALITATEA 2.050.000 PTA.tik AURRERA, PREVER-a BARNI



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnua: 943 79 07 44 / 54 • Faxa: 943 79 62 54

IV MUGARRI



Galartzako plazan Santa Luzietan ateratako argazkia, 50. hamarkadakoa. Ezkerretik hasita: Alberto Urrutia, Pablo Santamaria, Demetrio Iriarte (danbolinterua), Gregorio Basauri, Mariano Urrutia, Valentin Gastañaga, Jose Zuazua, Lazkano (Bergarako akordeoilaria), Fermin Alberdi, Antonio Zuazua, Teodoro Alberdi.

Auzoetako erromeriak indarra galduta

Udaberriko lehen erromeria datorren domekan ospatuko dugu, Otala Zelai eguna. Herrian bizirik mantendu den erromeria garrantzitsuenetakoa da. Jadanik auzoetako jaiak galdu dute garai batean izan zuten bizitasuna, danbolinterue, meza nagusia eta prozesioak, gonbidatuak, erromerietan pilatzen zen jendea...

Garbi dago ez direla garai berdinak, eta orduko eta egungo jai giroak zeharo desberdinak direla.

Auzoetako jaiak indarra galduaz joan dira eta hauek antolatzeke ere

ez dago lehen bezelako ilusiorik. Egia da, auzoetan lehen baino gazte gutxiago dagoela, eta garai batean beraiek ziren jaiak antolatzeke ilusioa jarri eta gastuak ordaintzeke dirua jartzen zutenak, soltero zeuden mutilak hain zuzen ere.

Gaur egun Otala zelaiko erromeria ilusioz mantentzen den bakarrenetako bat da. Arientzan, bestalde, auzoko jaietako tradizioari eutsi nahirik, jaiak gogotsu antolatzen jarraitzen dituzte. Beste auzo guztietan auzoko jaiak ospatu ospatzen dira, kanpaiak eta etxafleroak, meza eta auzo-afaria izaten dira ekintzarik aipagarrienak.

OTALA ZELAITIK ABENDUKO SANTA LUZIETARA

Uda sasoian ospatu ohi dira jairik gehienak. Auzoetakoak ere Arkarazoko San Millanak eta Galartzako Santa Luziak ezik uda partean ospatzen dira. Udaberriko lehen erromeria Otala-zelaikoa izaten da. Otala-zelai eguna "Santo Domingo", hain zuzen ere, entzute haundiko jaiak izan da beti. Egun Udalak antolatzen du eta herrian bizirik mantentzen den erromeria garrantzitsuenetakoa da, auzoetakoek indarra galdu dutenez geroztik. Ekainean Azatzako San Juanekin hasita, erreskaran datoz beste guztiak: Izurietan San Pedroak,

Larrinon San Kristobalak, Koruetan Santiagoak, Apotzaetxeberrin eta Arientzan Andra Mariak, Oron San Migelak, Arkarazon San Millaanak eta Galartzan Santa Luziak.

GONBIDATUAK UGARI

Auzoko jaiek berezitasunik bazuten, baserri edo etxe ia denetan pilatzen zen jende mordoak zen. Mila Zubizarretak Isurietako Olabe baserrikoak, behin 30 lagunetik gora elkartu zirela gogoan du, familiartekoak gehienak. "Batzuk gainera, lo egiten ere gelditzen ziren". Baina hau jai guztietako kontua zen. Luis Gastañaga Galartzakoa Errartena baserrikoak, esaterako, zera dio: tripa betetzearren baserrietan jendetza haundia pilatzen zela auzoko jaietan. Gonbidatu guztiei jaten emateko, bestalde, nahikoa lan izaten zen, oiloak lumatu, bazkari eta afariak gertatu...

JAIETAN LAN IZUGARRIA

Jaiak egun neketsuak eta dibertitzeko egunak izaten ziren aldi berean auzotarrentzat. Emakume askoren ahotan "gizon jaiak" zirela entzun zitekeen. Emakumearen ardura baitzen jatorduak gertatzea. Koruetako Arane baserrikoentzat, Santixauak jai egun gogorrak ziren. Gaur egungo Arane baserrian, garai batean taberna ere izan zena, baserriko lana ezezik tabernakoa ere gehitzen zen: bedar eta gari mozteaz gain, jaietarako edariak gertatu behar ziren; ardo botilak garbitu eta ardoz bete. Koruetako Santixauak, uztailaren 25ean, inguruko jairik garrantzitsuenetakoak ei ziren. Inguruko auzoetatik lagun asko

hurbiltzen zen, eta ez bakarrik herriko auzoetatik, baita Bolibar, Bedoña eta Araotzetik ere.

MEZA ETA PROZESIOAK

Meza nagusia solemnitare osoz ospatzen zen auzo guztietan. Eliza lorez beterik dotore-dotore jazten zen, meza jendetsuari harrera egiteko. Auzo batzuetako meza nagusiak prozesioak lagundutakoak ziren, Arientzan esaterako, "meza nagusia espeziala izaten zen. Zizili

baletan, bazkalostean, Teilleixe baserrian jotzen zuen soinujoleak, ilunkaran, berriz, erromeria eliza ondoan izaten zen. Goiz eta arratsalde ilunkara artean luzatzen ziren erromeriak. Azatzen larrinean egiten zen jaiak, Osintsuko Markos soinujolea sarri etortzen zen.

Soinujole eta gainontzeko erromerietako gastuak ordaintzeko, bestalde, auzoko mutilek jarri behar izaten zuten dirua. Orain, aldiz, auzoa bera arduratzen da



Larrinuko San Kristobaletan. Zutik: Juan Etxebarria, Antoni Lasagabaster, Eugeni Etxebarria, Juanita Arenaza, Jose Mari Etxebarria, Bicenta Idigoras, Matilde Bengoa, Santi Bengoa, Ines Iarza, (ezezaguna), Jesusa Iarza, (ezzaguna). Behean: Tomas Otxoa, Loentxo, Bixente (soinujolea), Mari Angela Etxebarria, Timoteo Idigoras, Juli Idigoras, Mari Bengoa, Jose Luis Txintxurreta, Luisito.

Arenaza Peruena baserrikoaren berbetan "Meza kantaua egiten zen eta zazpi bat abarekin. Prozesioa egiten zen ondoren. Baita Koruetako Santixauetan eta Azatzen San Juanetan ere. Santixauetako meza nagusian beste auzoetako abareek hartzen zuten parte: Don Simon, Don Pedro, Don Facundo... Azken honetara Arantzazuko frailea ere etortzen zen Don Bonik gonbidatuta. Bigarren egunez, auzoetan hildakoen aldeko meza izaten zen.

DANBOLINTERUE ETA SOINUJOLEA

Meza ostean, erromeriak jarraitzen zuen. Larrinuko San Kristo-

gastuetaz, Udaletik jasotako dirulaguntzarekin.

Bukatzeko, esan dezakegu, urteetan aldaketa haundia jasan dutela auzoetako jaiek. Hala ere, auzoko patroia oraindik ere bizirik dago auzotarren artean, eta meza, auzo-bazkari-afari, lunch-a eta bestelako ekintzak antolatzen dira. Arientzarrek auzo-espirtua ez dute galdu eta lehengo auzoko jaiak mantendu asmoz, jai txukunak antolatzen dituzte. Auzo gehienetan, bestalde, jaiak hurbileko astebukaerara pasatu dira; hala ere, Isurietan San Pedro egunez arratsaldean meza egiten jarraitzen da.

Auzoz-auzo jaiak gogoratuz

Otala zelai, Santo Domingo, maiatzak 12

Gaur egun Otala-zelai eguna jai giroan ospatzen bada ere, aintzina, behar bati lotutako ekintzaren inguruan antolatzen zen. Udaletxean dagoen 1866ko idazki batek honako hau dio: "maiatzean aukeratzeko ziren baserri auzo bakoitzak azaldutako zezenen artean behien "zerbitzurako" mendira jareingo zirenak". Aukeraketa eguntzat, maiatzaren 12aren hurrengo igandea hartu zuten garai batean, eta gaur arte iraun du jaiak, aukeraketak ordea ez.

Azatzan San Juanak, ekainak 24

Azatzako San Juan bezperan auzoko mutilek tantaixe jasotzen zuten gauean, hau ardo eta gatzaz ospatzen zen. San Juan egunez, meza nagusia izaten zen goizean. Eguerdirako soinujoia ekartzen zen bi egunetarako; Markos Osintsukoa sarritan etorri zen Azatzara. Larrinean egiten zen goizalderarte irauten zuen jaiak. San Juan bigarreneko larrosaz adornatutako karrosa egiten zela gogoan du Jose Ignazio Arkauzek. Soinujolea karrosan igota, eta astoa honen gidari zela, Koruetara joan-etorria egiten zen.

Izurietako San Pedroak, ekainak 29

Etxaflero eta kanpai errepikekin hasten zen Izurietako jai giroa San Pedro egunez. Meza nagusia solemnitaterik haundikoa eta jendetsua izaten zen Mila Zubizarreta Olabe baserrikoak kontatu digunez. Don Francisco Zaloña, auzoko abarea egun zenean, bezperak ere egiten ei ziren arratsaldean. Gerora, kaletik abadeak meza ematera igotzen zuenean, ohitura hau desagertu egin zen. Gaur egun San Pedro egunez arratsaldean meza egiten jarraitzen da.

San Kristobalak Larrinon uztailak 10

Gainontzeko auzoetan letz, San kristobalak ere bi egunez ospatzen ziren: San Kristobal uztailaren 10ean eta hurrengo eguna animen edo Larrinuko hildakoen izenean.

San Kristobal egunez, goizean-

goizetik, Tomas Otxoak etxe-etxe jotzen zuen txistua. Meza aurretik gonbidatuak oilo salda hartzera etortzen ziren eta ondoren meza izaten zen; normalean baino solemneagoa eta luzeagoa. Meza ostean, jaiak soinujoiekin alaitzen zuten elizondoan. Arratsaldean, Teillexe baserrian jarraitzen zuten dantzaldiak.

Koruetan Santixau, uztailak 25

Garai batean inguruko jai garrantzitsuenak ziren Santixauak. Bezperan hasten zen jai-giroa. Don Bonik gonbidatuta Arantzazuko frailea bezperan etortzen zen. Hurrengo egunean, meza nagusian beste auzoetako abareek ere parte hartu oi zuten: Don Simon, Don Pedro, Don Facundo, Don Jose... Soinua Santixau arratsaldetan izaten zen, Angiozargo Isaac akordeoilaria sarritan izan zen Koruetan. Santiago bigarrenean, meza ostean, goizean erromeria Koruetako zelaian hasten zen eta bazkal ostean, berriz, "Dixasko etxaburuan jarraitzen zuen". Arane baserrikoek taberna jartzen zuten bertan. Hauek nahikoa lan izaten zuten jaietan, baserriko lana eta tabernakoa aurrera ateratzen.

Jaiak amaiara emateko pontxe pitxarkarak saltzen ziren Araneko tabernan; arraultza, ardo-zuri, azukar eta gaseosaz eginiko edaria zen.

Arientzan Andramaixak Irailak 8

Arientzako jaiak indarra hartu dute azken urteotan, auzotarrek jaietako tradizioa mantendu asmotan, garrantzi handia ematen diete jaiak.

Zizili Arenaza, Peruena baserrikoak, bestalde, garai bateko Andramaixak ekarri dizkigu gogora. Irailaren 8an meza nagusia berezia izaten zen. "Zazpi bat abare etortzen ziren, eta eliza dotore jazten zen". Prozesioa ere egiten zela gogoan du. Meza ostean, gainontzeko etxeetan letz, gonbidatu asko izaten zen Peruena baserrian. "Etxea gainezka egoten zen, eta bazkaria aldanik eta onena egiten zen, oilasko, bildots..." Erromeria bi arratsaldetan egoten zen eta inguruko auzoetatik makina bat lagun hurbildu oi zen.

San Millanak Arkarazon azaroaren 12an

Zuetako askok gogoan izango duzue orain urte batzuk arte Arkarazon San Millanetan egoten zen jai giroa. Auzokideen iniziatiba eta elkarlanaz antolatzen ziren jaiak: meza, bola jokua, herri kirolak, musika taldea, txerri harrapaketa, asto lasterketa, goitibehera jeitsiera eta auto krossa ere egin zen urte batzutan zehar. Goitibehera jeitsierak, lagun asko erakartzen zuen eta hamabi bat urtetan edo antolatu zen. Urte batzutan gainera, musika talde garrantzitsuak izan ziren: Akelarre, Egan..., eta jakina, horrelako egitarau batekin jende asko hurbiltzen zen Arkarazora.

Gaur egun meza eta auzo-bazkaria egiten jarraitzen dute arkarazorrek.

Santa Luziak Galartzan, abendua 13

Urteko azken hilean Santa Luziak ospatzen dira Galartzan. Gaur egun jaiak astebukaerara pasatu diren arren, garai batean jai hartzen zuten auzotarrek; lantegiaren ere egun bateko jaiak eskatzen zen. Santa Luzietarako etxeko animalia ederrenak gordetzen ziren, egun horretan Galartzako baserrietan bazkari espeziala egiten zen; jakina, gonbidatuak ere bertan izaten ziren eta. Gainontzeko auzoetan moduan, meza nagusia eta erromeria izaten zen herriko plazan, bigarren egunez, hildakoen aldeko mezaren ondoren, erromeriak eliza ondoan jarraitzen zuen.

Apotzaetxeberrin Andramaixak Oron San Migelak

Oro eta Apotzaetxebarri elizarik gabeko auzoak izatean kaleko festekin bat egiten zuten. Apotzaetxeberrin jaiak Andramaixak dira, Oroko patroia, berriz, San Migel da. Bi auzoek kalekoekin batera ospatu izan dituzte jaiak.



Infantilek igo dute

UDA.ko infantil mailako futbolariak, oraindik denboraldiko partidu guztiak jokatu ez dituzten arren, mailaz igotzea lortu dute. 12-13 urte bitarteko 20 mutikoez osatzen duten taldeak, aurrerantzean ohorezko ligan jokatu dute. Bi partidu falta dira igoyerako fase hau bukatzeko, hala ere, igoera ziurtatuta daukate.

UDAKo talderik gazteena den hau, oso denboraldi ona egiten ari da. Santiago Morales da beraien entrenatzailea.

Jubenilen "Liga-Vasca" bukatu da

Pasa den apirilaren 30ean, jubenilek "Liga Vasca"ko azken partidua jokatu zuten. Llodio-ren aurka jokatuak partidu hasieran 1-0

emaitzarekin aurrea hartu bazuten ere, bukeran 1-1 egin zuten. Honela 6. postua eskuratu.

Liga honetan jokaldi onak egin badituzte ere, azkenean ezinezkoa egin zaie mailaz igotzea. Datozen asteetan Kopa jokatu dute.



UDAKo infantilak

Azken Partidua Kilimon-en aurka

Aste buru honetan, lehengo erregionalakoek, denboraldiko azken partidua jokatu zuten. Oraingo honetan,

Kilimon-en aurka. Datorren denboraldian maila berean jokatu dute.

Gainontzeko taldeei, hau da, kadete, preferente eta 1º jubenilekoei lau partidu falta zaie bukatzeko. Maiatzaren 31an bukatuko dute egun jokatzeko ari diren liga.

Iban Sastre, Urrakiko igoyeran garaile

Iberdrola taldeko 20 urteko atxabaltar honek, garaipena lortu zuen maiatzaren 3an ospatutako Urrakiko igoyeran.

37 kmtako igoera duen proban, 29,062 km/ordutako abiaduran media egitea lortu zuen Ibanek.

Egia esan, ia lasterketa osoa bakarrik egin zuen, eta atzetik zihuan 14 mutilez osatutako taldea, 43' beranduago iritsi zen. Lasterketan zehar lurra buztita zegoela eta behelainoa ere ageri zela adierazi behar da; baita gailurrean zegoen hotza ere.

Hala ere, Ibanek ondo aurre egiten jakin zuen. Momento honetan "Vuelta Bidasoa" korritzen ari da, zapatuen bukatuko dena.

Dorletako Ama T.T lasterketaz-lasterketa

Maiatzaren 9an, Fagor taldeko jubenilek Arantzazuko igoyeran parte hartu zuten. Domekan berriz, Mutrikura joan ziren. Orokorrean Fagoreko jubenilek ondo ibili ziren. Asier Atxa esaterako, Arantzazuko frogan 12. eta Mutrikun 5. gelditu zen.

1. urteko kadeteak, berriz, Urnietan egon ziren igande arratsaldean. 88 txirrindularitik 36 izan ziren helmugaratu zirenak. Horien artean, JMA taldeko bi.

Azkenik, 2. urteko kadeteek, Musakolako XIII lasterketan parte hartu zuten. JMATik zazpi izena eman bazuten ere, bostek bakarrik lortu zuten froga amaitzea.

Pala txapelketako 2. jardunaldia

Kirol-Etxean jokatzeko ari den pala txapelketan, dagoeneko bi jardunaldi egin dira. 14 bikote izan dira txapelketa honetara aurkeztu direnak, zeintzuk zazpi bikoteko bi taldetan banatu diren.

A taldean R. Agirre eta M. Uribeberriak aurrea hartu dute 27 punturekin. Jokatuak bi partiduetatik biak irabazi dituzte eta. Hauetatik puntu bakarrera, bigarren postuan, M. Uribeberria eta J. Urkia daude.

B taldean berriz, I. Agirre eta X. Basabe dira oraingoz lehen postua lortu dutenak. Jokatuak bi partiduak irabazi dituzten arren, lortutako puntuazioa 21ekoa da.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

XX.Otala-Zelaiko krossa


Ez zen Kamel Zianiren 40'29"tako marka gainditu

Azken 20 urteotan bezala, pasa den domekan ere Otala-Zelaiko kross herrikoia ospatu zen. Egia esan, eguraldiak ez zuen asko lagundu, haize sakarra zebilen eta. Hala ere, guztira 56 korrikalarik hartu zuen parte; eta horietatik 42-k amaitu zuten.

Kamel Zianik, joan den urteko frogako garaileak, 40'29"tako denbora egin zuen, orainarteko denborarik azkarrena gainera. Aurtengo garaileak ezin izan zuen denbora hau hobetu, lortutako emaitza 44'11"tako izan zen.

Lau izan ziren froga honetan parte hartu zuten emakumeak, eta horietatik atxabaltar bakarra; M.^a Elena Llorente. Honek, 3. postua eskuratu zuen, 35'53" denborarekin.

Nagusien froga honetan, orokorrean 14 atxabaltarrek hartu zuten parte.



56 korrikalarik hartu zuen parte

SAILKAPENA:

Senior

- | | | |
|----------------------|--------|----------------|
| 1.- Xabier Iturralde | 44'11" | (Azpeitia) |
| 2.- Jesus Mari Manso | 44'18" | (Legazpia) |
| 3.- Javier Vadillo | 46'48" | (Legazpia) |
| 4.- Roman Rodrigez | 48'15" | (Zarautz) |
| 5.- Miguel A. Encina | 48'33" | (Legazpia) |
| 6.- Asier Aranburu | 48'38" | (Zumarraga) |
| 7.- Joseba Larrinaga | 48'48" | (Aretxabaleta) |

Emakumeak

- | | | |
|------------------------------------|--------|----------------|
| 1.- Mari Jose Gil | 29'45" | (Arrasate) |
| 2.- Belen Domingez | 34'54" | (Bergara) |
| 3.- M. ^a Elena Llorente | 35'53" | (Aretxabaleta) |
| 4.- Mila Domingez | 36'43" | (Estella) |

Beteranoak

- | | | |
|---------------------|--------|----------------|
| 1.- Juan Aldai | 21'30" | (Deba) |
| 2.- Javier Mentxaka | 21'48" | (Arrasate) |
| 3.- Serafin Garcia | 22'48" | (Lasarte) |
| 4.- Alfonso Luelmo | 22'37" | (Aretxabaleta) |


Junior

- | | | |
|----------------------|--------|----------------|
| 1.- Fernando Nogales | 23'38" | (Arrasate) |
| 2.- Oliver Fernandez | 26'22" | (Arrasate) |
| 3.- Unai Elorza | 26'50" | (Arrasate) |
| 4.- Iker Sanz | 28'37" | (Aretxabaleta) |

Martin Antxia eta Jon Rodriguezek buelta osoa eman zuten

Hamabi urtetako Martin Antxia eta Jon Rodriguez mutikoez ere, nagusiez bezala buelta osoa eman zioten Urkuluri. Aurretik, 800 metrotako lasterketan hartu zuten parte.

Martin Antxiak 36'15"tako denbora egin zuen, eta Jon Rodriguezek 37'37"takoa.



Alfonso Luelmo beteranoetan lehen atxabaltarra

Hamabi Atxabaltar helmugaratu ziren

Orokorrean hamabi atxabaltarrek baino gehiagok parte hartu bazuen ere, hamabi bakarrik izan ziren froga amaitu zutenak. Hiru senior, emakumezko bat, bost beterano eta azkenik junior bakarra. Guzti hauei, aurrez aipatutako Martin Antxia eta Jon Rodriguez gehitu behar zaie.

Berakatz sopa eta bakailoa baratxuriekin

Jarraian agertzen den menua, "Pitxi" k eskeinitakoa da. Edozein gosetzeko modukoa da gainera. Berakatz sopa eta Bakailoa baratxuriekin gogoko izanez gero, hona hemen aukera ezin hobea!. Sabela goxo-goxo betetzeaz gain, sukaldean trebetzeko balioko dizu. On egin!

BERAKATZ SOPA:

Osagaiak:

- (4 pertsonendako).
- 2 berakatz ale
- piper gorri 1
- porru 1/2
- kipula 1/2
- ura
- txorixo bat
- hirugiharra
- pistola 1/2
- 4 arraultza

Jarraitu beharreko pausoak:

Salda egiteko, urari, berakatz, piper gorria, porrua eta kipula gehitu behar zaizkio, ondoren guztia txiki-txiki egin arte birrinduz. (Osagai guzti hauek, lehendik egosita egon beharko dute).

Salda hau prest dagoenean, pistola erdia ere honi gehitu beharko zaio, honela, 20 minututan zehar sutan utziz. Bitartean, txorixoa eta hirugiharra zati txikitik zatituko da, jarraian frijitu ahal izateko.

Prest daudenean, saldari gehitu go zaizkio. Baita, pertsona bakoitzeko gordinik dagoen arraultze bana ere.

Bukaeran, osagai guzti hauek gehitu ondoren, beste bost minututan sutan utzi beharko da.

(buztinezko lapiko batean eginez gero, kontuz ibili eta ez jarri sutan salda eduki aurretik, bestela apurtu eginten da eta).

BAKAILOA

BARATXURIEKIN:

Osagaiak:

- 250 gr bakailo pertsona bakoitzeko
- 4 berakatz ale
- olioia, 6 golarakada (1º)

Jarraitu beharreko pausoak:

Lehenik eta behin, bakailoa prestatzen hasteko, berakatz frijitu behar da. (honetarako gradu 1-eko olioia erabiltzea gomendatzen da).

Kontuz! Berakatz beltzitu aurretik atera beharko da, ondoren, 15 minututan olioia hozten utziz.

Aurrez, bakailoa lapiko batetan ipini beharko da. (Kasu honetan, gomendagarria izaten da bakailoaren alderik zuriena beherantz begira jartzea). Ondoren olioia gaintetik izuriko zaio.

Hau egindakoa, 20-30 minutuz sutan jarriko da, poliki-poliki mugituz. Bakailoak bere gelatina askatu eta saltsa nahiko lodi dagoenean, aurrez frijitutako berakatz gaintetik botako zaio.

Honela, beste 10 minututan sutan utzi beharko da, orain ere mugitzea komeni delarik.

Pitxi dioenez, "*behin bakailoa prestatuta izanik, egun batetik bestera utziz gero, askoz goxoagoa gelditzen da*".



Pitxi Eguzki-Alde elkarteko sukaldean

"Pitxi" bezela ezaguna den Francisco Javier Lanzosi, betidanik gustatu izan zaio sukaldean ari-tzea. Horregatik, orain dela urte batzuk, "Eguzki-Alde" elkarte gastronomikoan janariak prestatzeari ekin zion. Mota guztietako janariak prestatzen ditu, baina oraingo honetarako, bertan azaltzen diren berakatz sopa eta bakailoa baratxuriekin aukeratu ditu.

Okindegia - Goozolegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA



M

Maiatzean jaunartzeak

Maiatza jaunartzeen garaia da; neska-mutikoek katekesi klaseen eta penitentzia ospakizunaren ondoren, gertu daude euren lehen jaunartzea egiteko.

Oraingo honetan 1969. urtean jaunartzea egin zuten mutikoak ditugu argazkian. San Isidro egunez, maiatzaren 15ean, txintxo-txintxo Monjetako elizan (urte batzutara erre eta berritze premiagatik bota egin behar izan zena) ospatu zuten jaunartzea. Argazkian, mutikoak, (orduan neskak eta mutilak bananduta ospatzen baitzuten) monjetako elizatik irten eta parrokiraino abiatzen azaltzen zaizkigu. Binan-binan eta eskutik ebatuta joatea zen ohitura, ez du ez gaurkoaren antzik! Batzuk "marinerito" jantzita, fraka luze edo motzekin, baina guztiak errosario eta misalaz daude.

Argazkikoak ezkerretik eskumara: **Aitor Irure, Imanol Aizpurua, Juan Manuel Martinez, Jesus Mari Rosado "Txispas", Juan Pablo Atxaga, Andoni Zubizarreta, Luis Antonio Etxebarriarteun, Rufino Martinez, Jabier Barbero, Felis Beltran de Heredia, Kepa Antxia.**

Argazkia: Felis Beltran de Heredia

OHARRA: Kontu zaharren txoko honetarako argazki zaharren bila gabiltza. Beraz, argazki zaharrik atal honetan erakutsi nahi izanez gero, Aretxagazetara ekartzea eskertuko genizueke. Kultur etxean gaude.

Martín

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKL

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

LANA

◆ Euskadiko Orkestra Sinfonikorako musikariak behar dira: **perkusioa, bibolina eta biolontxelo**. Epea: maiatzak 25.

◆ Erropen konponketak egiten dira. 79 75 82 Conchigatik galdetu.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Zerbitzaria. Ref: 5629/3. Ibaizabalen kokatutako enpresa.

Komertzial aholkulariak. Ref: 6388/3. Bilbon kokatutako enpresa.

Jendearentzako harretaren ikuskatzailea. Ref: 8355/2.

Jendearentzako harretaren agentea. Ref: 8357/1.

Bi gerente. Ref: 7163/2. Nafarroako bankuetxe batek.

Barne dekoraziorako operarioa. Ref: 8105/2. Gasteizen dagoen enpresak.

Urdaiazpiko ebakitzalea. Ref: 8203/5. Plentzi-Mungiarako.

◆ **Lanpostu publikoak:**

Pediatra. Nafarroako osasun zerbitzua. Aurkezteko epea: 98/5/17

Administraria. Elgoibarko Udala. Aurkezteko epea: BOEn argitaratzeko zain.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

Administraria. Lasarte-Oriako Udala. Aurkezteko epea: 98/5/21

Psikomotrizistak. Nafarroako komunitateak. Aurkezteko epea: maiatzak 27.

DENETARIK

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauetara: 79 58 40 (erantzungailua) 79 58 77.

◆ Gitarra espainola salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 72 39. Carlos.

◆ Larre behiak salgai. Tfnoa: 16 06 16/88 50 07.

◆ Erdi tamainako mendi bizi-kleta salgai. Prezio onean. Tfnoa: 77 08 02.

ETXEBIZITZA

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrea).

◆ Lokal komertzialak salgai Aretxabaletan. Azalera desberdinetakoak (50 m²-tik 200 m²-tara) Toki egokian eta prezio onean. Tfnoa: 77 16 41-79 96 72.

LEHIAKETAK

◆ **98ko San Pedro jaietako egitaraua.** Kartelak ondorengo lema izan beharko du: "Eskoriatza, 1998ko San Pedro jaiak", ekainak 28, 29, 30 uztailak 1. Saria: 25.000 pta. Aurkezteko epea: ekainak 3, Eskoriatzako kultur etxean.

BEKAK

◆ **Joseba Jaka, II. literatur beka.** Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak, literatur sorkuntzako II. dirulaguntza-deialdia anolatu du. Hamar milioi pezeta banatuko dira beketan: eleberria, olerkia, saiakera eta gazte-literatura. Epea: 1998ko abenduak 19. Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa/Portuete kalea 88 20009 Donostia. Informazioa: 943-21 94 27.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Astebukaera borobila



Jaia zapatuan hasiko da. Batzuentzat oso goiz gainera, horien artean Gorriñaren martxa egiteko asmoa dutenentzat. Aurten oinez ere egin daiteke, beraz, gura duzuenok badakizue. Gehienentzat eguna beranduago hasiko da, batzuk tortila usain goxoarekin jaikiko zarete eta estomagoko deia sentitzen ez dutenek, 12etan kanpai doinu desberdinen erakustaldian esnatuko dira ziurrenik. Oraindik esnatu barik geratu direnak, ia ba behingoz 12,30etan txalapartaren soinuak esnatzen dituen. Beraz, erdi aldean bizi zaretenok luzaroan lo egiteko plana alperrik izango duzue.

Behin jaikita gero, onena gazta eta sagardo apur bat hartzea izango duzue, horrela, bazkarirako umore egokian egoteko. Ostean joko zaleek xake eta musa izango duzue aukeran eta dantzazaleentzat dantza. Ordurako gizonezkoak nekatuta egongo zarete, baina emakumeok oraindik bolotan egiteko aukera izango dugu.

Horren ostean dutxa bat hartu eta gauean Alaitz eta Mainerrekin musika bizi eta gozoaz dantzatzeko gertu egongo gara. Hortik aurrera bakoitzak ahal duena egin dezala.

Eta domekan osterera ere gora! Ojala-zelain daukagu erromeria. Han izango ditugu, zela ez, Gorriti eta bere animaliak. Janaria hartu eta egun ederra pasatzeko aukera zoragarria izango da Ojala-zelain. Ia ba eguraldiak laguntzen duen.

Jai haundiekin jarraituz, **Itxaro Zubillaga** ikusi genuen ETBn Alaveseko jai haundian. Eta futboleko hain garrantzitsua den kantera hori, badirudi ETBK ATBn topatzen duela.

Kantera kontuekin jarraituz esan behar da, **Edu Abasolo** eta **Iban Gonzalez** atxabaltarrak ATBko astebukaeretakoa kameralari berriak direla.

Bestalde, **Jesus Atxa** 1920.ean Atxabaltan jaioa eta orain Iruñan bizi dena, Euskaltzain ohorezko izendatu dute Iruñako ikastolen alde egindako lanagatik. Jesus UDAko lehen taldeko jokalaria ere izan zen, hau da hau, batzuk dana eta beste batzuk...

Gai bitxiagoetara joaz, apirila bukaeran **Txema Gallegok** eta Pol bere txakurrak obra-hondakinetako homologazioa atara zuten, Bergaran egin zen proban. Orain elur-jauzietakoa ateratzea gelditzen zaio.

Dagoeneko aspertuta egongo zarete, beraz, datorren astebukaeran irten kalera zer egin badago eta.

Liburutegiko txokoa

Liburu berrien zerrenda

0 urtetik aurrera

- Elmer y el tiempo / David Mckee
- El perro López / Nick Denchfield, Ant Parker
- El pollo Pepe / Nick Denchfield, Ant Parker
- Maisy se va al parque / Lucy Cousins

8 urtetik aurrera

- Los traspies de Alicia Paf / Gianni Rodari

10 urtetik aurrera

- La bolsa o la vida / Hazel Townson

12 urtetik aurrera

- Cuando los gatos se sienten tan solos / Mariasun Landa
- El pazo vacio / Xabier P. Docampo
- Eguzkiren etxea / Felipe Juaristi
- Morirás en Chafarinas / Fernando Lalana

Nobelak

- El año que viene en Tanger / Ramón Buenaventura
- Caracol Beach / Alberto Eliseo
- A salto de mata / Paul Auster
- Margarita, está linda la mar / Sergio Ramírez
- El corazón tardío / Antonio Gala
- El otro barrio / Elvira Lindo
- Icaro / Alberto Vázquez-Figueroa
- Tentazioak / Jasone Osoro

Kontsulta liburuak

- Las chicas buenas van al cielo y las malas a todas partes / Ehrhardt
- Guía de las empresas que ofrecen empleo 1998
- La ley de Murphy / Arthur Bloch

Joseba Lopez de Armentia

MAIATZA

16

17

zapatua

domeka

15

egukotxa

ANTZERKIA

Kukubiltxo antzerki taldeak "Kukubel" antzezkiuz berria estreinatuko du arratsaldeko 4,30etan plazan. Eguraldia egokia ez bada Iturrigorri frontoian.



Jokin Solozabal eta Ainhoa Agirreazaldegirekin herri bazkaria egingo da Euskararen egunean

EUSKARAREN EGUNA
Egitaraua hamabostean behinen.

GORRIÑA III. MEMORIALA
Aurten takarraran eta oinez egingo da.

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX ARRASATEN
Askagintzak antolatuta, Amaia antzokian eguerdiko 12etan.

OTALA-ZELAI EGUNA
Gorritiren animaliak, trikitilariak, bazkari herrikoia, sokatira, dantzariak...

18-22

NAZIOARTEKO HEZKUNTZ TRUKE TOPAKETAK

Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean nazioarteko hezkuntz truke topaketa egingo da maiatzaren 18tik 22ra bitartean. Luis Ezeiza, Europako beste hiru ikastetxe moduan, Europar Hezkuntz proiektu batean partaide da eta proiektu honetako ordezkariak elkartuko dira topaketan. Egitarauan, Eskoriatzako museo eskola, Telesko, Leintz Gatzagara... bisitaldia egiteaz gain, beste hainbat ekitaldi eta hausnarketarako tarte ere izango dute.

MUSIKALDI 98


Musika eskolako 35 bat neska-mutikok Gernikan ospatuko den "Musikaldi 98"-an hartuko dute parte maiatzaren 24an.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekararren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**T
X
I
L
A
R
R
A**



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

**IMANOL
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

Etxabe harategia

Durana 4
☎ 79 16 61

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

Izozkiteki-Gozotegia

IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

23-24

IKASTAROAK

A.E.D. ELKARTEAREN 15.
URTEURRENA

"AMETSA ERAIKIZ DOA"

Maiatzaren 23an gaueko 10etatik aurrera kontzertua Monterronen.

Naun, 2 Kate, Ekon, Imanol DJ, Arrasate DJ.

Maiatzaren 24an ekintza ugari: kale animazioa, bertsolariak, aurkezpen ekitaldia, bazkari herrikoia, Etzakit musika taldea, iparraldeko herri kirolak, Lorelei, Arrasateko Nomen...

EKAINA

6

zapatua

PEDRO GUENETXEA
MEMORIALA

Bigarren urteko kadeteek parte hartuko dute. Proba Durana kalean hasiko da arratsaldeko 4,30etan.

DEBA GARAIKO
ESKOLARTEKO IX.
OLINPIADA
ARETXABALETAN

ESKALADA IKASTAROA
Murruxio M.E.ak eskalada ikastaroa antolatu du maiatzaren 23 eta 24rako. Informazioa eta izen ematea Murruxio lokalean martizenetan 7,30etatik aurrera egin daiteke.

ERAKUSKETAK

EUSKAL HERRIA ETA
DINOSAURIOAK

Arrasateko Monterron kultur etxean maiatzaren 4tik 17ra bitartean.

KOSMOS GELA-Planetario eta astronomiari buruzko argazkiak
Maiatzaren 19tik 26ra bitartean Arrasateko Monterron kultur etxean.

Auzoetako mezak:

Maiatza (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Koruetan 12etan.
- Arkarazon ordu lean.

BEHARREZKO
TELEFONOAK

943...

Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurtzebarri Eskola B.H.I.	79 57 40
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

ERREKABARREN
MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43

JOSE MARI GORRITIBEREA



Debako baserri batetan jai-
oa bada ere, bere bizitzako
27 urte Gazteizen egin zitu-
en. Baina kostaldea gogo-
ko duenez, egun Zumaian
bizi da. Askori bere
aurpegia ezaguna egingo
zaizue, Otala-zelai
egunean bere animaliekin
ikusiko zenutelako.

• Zenbat urte animaliekin lanean?

Festibal eta erromerietan parte hartzen orain dela 20 urte inguru hasi nintzen. Hala ere, 3 urte nituenetik, animaliez inguratuta egon naiz.

• Zein animali daukazu?

Zezenak, oiloak, basurdeak, usoak, ponyak... danetik apur bat..

• Zenbat konkretuki?

Usoak adibidez 200, zezenak

“Duda barik, txakurra da gizakiaren lagunik onena”

80...dena kontatzen hasteko hatza-marrik ez!

• Zein animaliarekin daukazu harremanik onena?

Ponyekin.

• Animalia bakoitzarekin zein ekitaldi egiten duzu?

Oiloekin, adibidez, hasierako agurra egiten dut. Basurdeekin eta zezen txikiekin emoziozko ekintzak. Umeei azken hauek batez ere asko gustatzen zaie.

• Beraiekin komunikatzeko hitz berezirik erabiltzen duzu?

Bai noski. Hitz hauek motzak eta argiak izan beharra daukate.

• Adibidez?

Ponyei “io”esteak, gelditza esan nahi du..

• Asko kostatzen da animaliak hezitzea?

Bai asko. Batez ere oiloak.

• Oiloei izen ospetsuak jartzen diezu?

Bai. Oso oilo ona den batek Ruiz Mateos dauka izena. Harroa eta elegantea den beste batek, aldiz, Mario Conde. Roldan izeneko oilo bat ere badaukat, gaiztoa delako.

• Zer da errazagoa, animaliak ala pertsonak hezitzea?

Nere ustez animaliak. Hala ere, azkenean gauza berdintsuak dira.

• Zenbat urte Otala-Zelaira etortzen?

9-10 urte inguru izango dira. Oso gustora joaten naiz bertara. Oso egun polita iruditzen zait.

• Honelako erromeria asko ezagutzen dituzu?

Bai. Maiatzaren 3an adibidez, Getarian egon nintzen, San Prudentzioak ospatzen.

• Gaiz aldatuz, neska kaletarrak ala baserritarrak?

Baserritarrak, animalien inguruan gehiago dakite eta..

• “Gorriti”, kotxe handia ala txikia nahiago duzu?

Txikia

• Oporrak udan ala neguan?

Neguan, lasaiagoak dira eta.

• Txistek entzun ala kontatu?

Danetik egin izan dut.

• Animalia bihurtzekotan ?

Ponya.

• Txakurra gizakiaren lagunik onena da?

Bai duda barik gainera..

• Pertsonengan gehien apreziatzen duzuna?

Umiltasuna..

• Bukatzeko , Euskal Herriko lekurik politena?

Errioxa oso gogoko dut, baita Zumaia eta Deba aldea ere.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe

ARTEZI EUSKALDUN BATI
EXTRALIURTAR BAT AZALDU
OMEN ZITZAION O.N.U.-REN
SEDEA NON DAGOEN
GALDEZKA

BAI KURIOSOA:
EUSKERAZ FENOYENO JAKIN
ETA O.N.U. NON DAGOEN
IDEIARIK
ERE EZ!

GAINERA NORI GALDEZKIKO
ETA HENDIAN BAKARDADEAN
BIZI DENARI.

LELO SAMARRA BEHAR
DU IZAN
ALAJAINA!

ATZO OVNI BAT ERORI ZEN
MENDI BATEN PUNTAN
ATZO BI MARTIZIANO
POLIZIEK EZARRI GARTZELAN
(Niko Etxart)

ETXE MOBEL

M U E B L E S

ALZARIAK

LOGELETAN
maisua

Zapata
arratsaldeetan
zabalik!!



Eta orain
2. SOLAIRUA

Saloi eta sofa
erakusketa

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia. Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE

a, eme...
interiores



Garibai, 9
20.500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tel.: 79 15 03
Telefax: 79 14 89

a, eme... interiores



DESKONTUAK

%20

%30

%50

**Altzari
erakusketak
aldatzen ari gara**

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**



etxeko ekipamendu osoa